

2. CANVAS

2.1. Balorezko proposamena.

Gure proiektuaren helburua haur hezkuntzako ikasleen ur kontsumoa sustatzea eta ohitura osasuntsuak txikitatik garatzea da. Horretarako, armairu adimendun jasangarri bat diseinatu dugu, non haur bakoitzak bere metalezko botila pertsonala gordetzen duen eta sistemak automatikoki adierazten duen botila betea edo hutsik dagoen. Pisu-sentsoreen bidezko teknologia honek haur bakoitzaren ur kontsumoaren jarraipena modu zehatz eta eraginkorrean egiteko aukera ematen du.

Gure produktua haurren autonomia lantzeko tresna bikaina da. Haurrek beraiek ikasten dute noiz edan behar duten eta nola kudeatu behar duten haien ura, helduen etengabeko esku-hartzerik gabe. Horrela, haurrek ardura eta autozaintza garatzen dituzte, eta ohartzen dira osasuna beraien esku dagoela. Aldi berean, irakasleen lana errazten da, haur bakoitzaren ur kontsumoa kontrolatzeko prozesua automatizatuta geratzen delako, eta denbora hori beste jarduera hezigarrietan erabil dezakete.

Proiektuaren jasangarritasuna ere funtsezkoa da gure balore-proposamenean. Metalezko botila berrerabilgarriak erabiliz, plastikoaren erabilera murrizten dugu eta ura soilik edateko ohitura sustatzen dugu, azukredun edarien ordezt. Sistema hau ingurumenarekiko errespetuzkoa da eta ikasle txikien artean kontsumo arduratsua eta ingurumenarekiko kontzientzia bultzatzen du.

Bestalde, osasunaren ikuspegitik, haurrek egunean zehar behar adinako ura edatea funtsezkoa da garapen fisiko eta kognitibo egokirako. Gure sistemak ura edateko maiztasuna eta kantitatea handitzen laguntzen du, eta horri esker, haurren kontzentrazioa, energia maila eta ongizate orokorra hobetzen dira.

Etorkizunean, sistemari aplikazio digital bat gehitzea aurreikusten dugu, gurasoek seme-alaben ur kontsumoa jarraitzeko aukera izan dezaten, eta haurrek motibazio osasuntsua izan dezaten sari txikien bidez, adibidez pegatinak, puntu-sistemak edo erronka dibertigarriak.

Azken finean, gure produktuaren balore nagusia da osasuna, autonomia eta jasangarritasuna uztartzen dituela modu adimendun eta hezitzailean. Haurrek beren autozaintza ohiturak garatzen dituzte, irakasleek lanaren erraztasuna lortzen dute, eta ikastetxeak ingurumenarekiko errespetu eta berrikuntza teknologikoaren eredu bihurtzen dira.

ITURRIAK →



STARTInnova. (s. f.). <https://www.startinnova.com/>

TuLibrodeFP, SLU. (s. f.). *IPE II 2025.*

<https://libreria.tulibrodefp.es/inicio/287-ipe-ii-2025.html>